

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

G-2 egikaritze-unitateko xehetasun azterketa

2022ko uztailearen 20an egindako osoko bilkuran, hasierako onespina eman zitzaion honako testu hau duen xehetasun azterketa onesteko espedienteari:

“Udal hau, hiri lurzoruaren antolamendu xehatua zehazteko helburuaz, ondoko xehetasun azterketa hau onesteko izapideak egiten ari da:

INSTRUMENTU MOTA	XEHETASUN AZTERKETA
Eremua	G-2 egikaritze unitatea (Galarretako herrigunea)
Garatzen duen instrumentua	Donemiliagako planeamendu arau subsidiarioak
Xedea	Galarretako 1 poligonoko 1280, 1281 eta 1282 lurzatiaren zenbait hirigintza-parametro aldatzea
Lurzoruaren sailkapena	Hiri lurzorua
Lurzoruaren kalifikazioa	R6.2 bizitegiak

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzarenak, 98.1 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, espedientea jendaurrean jartzen da hogeit egunez, iragarki hau ALHAOn eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jendaurrean dagoen bitartean, espedientea aztertu nahi duen ororen esku egongo da, egoki deritzen alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Iragarki honek interesdunei jakinarazteko balioko du, baldin eta ezin izan bada entzunaldi izapidearen jakinarazpen pertsonala egin.

Epe hori igarotakoan alegaziorik aurkeztu ez bada, dokumentua behin betiko onesteko bideratuko da, bidezkoa baldin bada.

Eten egiten dira planeamenduaren xede den lurraldeko areatarako onespina, baimenak eta lizentziak ematea, baldin eta horietarako erabaki berriek indarreko hirigintza araubidea aldatzea badakarte.

Etete horien eraginak behin betiko onarpena emandakoan iraungiko dira eta, edonola ere, hasierako onarpena ematen denetik urtebeteko epean.

Erdoña, 2022ko irailaren 29a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO